PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITU BEHARREKO HORNIDURA-KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA TEKNIKO ZEHATZEN PLEGUA.

IZENBURUA: UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO LABORATEGI TEKNOLOGIKO IZENEKO ESPAZIORAKO LANEKO EKIPOAK HORNITU, MUNTATU, INSTALATU, MARTXAN JARRI ETA HORIEI BURUZ PRESTAKUNTZA EMATEKO KONTRATAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Urola Kostako Udal Elkarteko Laborategi Teknologikoko ekipoak prozedura irekiaren bidez hornitzeko, muntatzeko, instalatzeko, martxan jartzeko, erabiltzeko eta mantentzeko baldintza teknikoak ezartzea:

- FORMATU HANDIKO 3D INPRIMAKETA
- 3D ESKANERRA
- LASER EBAKITZAILEA
- FRESATZEKO CNC MAKINA
- PCB-RAKO CNC FRESATZEKO MAKINA
- BINILO EBAKITZAILEA
- TRANSFER PLANTXA
- JOSTEKO ETA BRODATZEKO MAKINA DIGITALA
- PINTURA-ESTAZIOA
- ESKU-ERREMINTAK

Laborategiko ekipamendua osatzen duten lan-tresna eta -ekipo guztiak *hobby* izaerakoak dira (ikastea eta prototipoak egitea), erabiltzaileen eta espazio horretan garatu beharreko proiektuen mailarako egokiak, eta ez dute industria-erabileraren berezko ezaugarririk edo potentziarik.

2. AURREKONTUA.

Erosketarako ezarritako prezioa 50.370,98 €-koa da (BEZik gabe). Enpresa lizitatzaileek prezioa hobetu ahal izango dute, betiere makinaren ezaugarriak eta osagaiak urritzen ez badira.

Makinek, gutxienez, I. ERANSKINeko (EKIPAMENDUAREN TXOSTENA) 3. ataleanadierazitako ezaugarriak izan beharko dituzte.

3. AURREKARIAK

Sustatzaileak, Urola Kostako Udal Elkarteak (IFK: G20392064; helbidea: Urdaneta Bidea, 6, Zarautz) partaidetzarako eta coworkingerako laborategi teknologiko bat jarriko du martxan, gaur egungo egoitzan kokatutako lokal batean.

Urola Kostako Udal Elkarteko ekimen hau topaketa eta elkarlanerako gune irekia izango da, artea, zientzia eta teknologiaren inguruko esperimentazio, ikerketa eta sorkuntza proiektuak ikasi, sortu eta garatzeko. Horretarako, elektronikako baliabideak, programazioa, prototipoak egiteko makinak eta fabrikazio digitaleko tresnak eta coworking-gune bat erabili eta interesdunentzat eskuragarri jarriko dira, Urola Kostako laborategi teknologikoak eskura jartzen dien ekipamenduaz gozatuz, beren jarduera edo enpresa-proiektua garatu nahi duten pertsonentzat.

Dokumentu honen xedea da Urola Kostako Udal Elkarteko egoitzan dagoen teknologia-laborategia eta coworking-gunea hornitzeko identifikatu diren ekipo eta soluzio teknologikoen hornidura, instalazioa, konfigurazioa, martxan jartzea, gaikuntza eta probak deskribatzea.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

4. HORNITZEKO GUNEAREN DESKRIBAPENA

Proiektuaren kontzeptua espazio gardenean oinarritzen da, eta bertan laborategi teknologiko bat eta coworking espazio bat jarriko dira martxan.

Plegu honen xede den hornidura egiten den bitartean, aurreikusita dago leku berean gauzatzea klimatizazio- eta berokuntza-instalazioei, egokitzapen-instalazioei eta altzarien hornidurari dagozkien obrak. Horiek lizitazio eta kontratazio independentearen xede izango dira, eta, hartara, baliteke lan horien esleipendun diren beste enpresa batzuek aldi berean esku hartu ahal izatea, eta beharrezko koordinazio-bitartekoak ezarriko dira horretarako.

Eraikina lizentziaren zehaztapenetara egokitzeko egin beharreko aldaketak egin ondoren, tailerren eremua prestakuntza-tailerretarako erabiliko da, eta mendebaldeko fatxadako zamalanetarako ibilgailuen sarbide-eremua, berriz, arrisku bereziko eremu bihurtuko da; eraikinaren gainerakoa administrazio-gune eta erabilera publikoko gune gisa mantenduko da.

Laborategiko jarduera guztiak garatzeko espazio komun handiko ideia hori jada espazioan dagoen altzari handi bat sortzea da. Altzari horrek iparraldeko fatxada osoa zeharkatzen du, eta zehaztu dugun erabilera-eremu bakoitza sortzen du (ikus II. ERANSKINA. EKIPAMENDUAREN KOKAPENA):

- **Eskuzko laborategia.** Tailer amateur tradizional baten antzekoena da. Espazio horretan, lan-aulkiak, eskuzko erremintak (mailuak, hainbat motatako giltzak, aliketak, guraizeak, etab.), erreminta elektrikoak (zulagailuak, torloju-makinak, ebakitzeko zerrak, lixagailuak, etab.), harraskadun gainazal bat, pieza txikiak margotu edo bernizatzeko espazio ireki txiki bat eta «Kaiola» daude. Azken hori fresatzeko CNC makina bat duen kabina da, eta zurezko *hobby* lanak egiteko aukera ematen du. Espazio hori behar bezala argiztatuta eta aireztatuta egongo da, eta arreta berezia jarriko zaio pintatze-eremuari, erauzketa-sistema eramangarri propioa izango baitu, bai eta fresatzeko CNC makinaren kabinari ere. Azken hori, airea berritzeko sistema orokorrera konektatuta egoteaz gain, behar bezala intsonorizatuta egongo da, jarduera mota horrek zarata-maila jakin bat sor baitezake eta laborategiko gainerako jarduerak oztopa baititzake. Lokalaren alde honetan egiten diren lanek gainerako jarduerekin eragin ditzaketen interferentziak minimizatzeko, baina laborategi bakarraren ideia alde batera utzi gabe eta lokal osoan ikusmen-komunikazioa galdu gabe, PVCko xafla malguz egindako gortina mugikor bat jarriko dugu, laborategi honen eta gainerakoen artean banaketa ikusezina sortzeko.

- **Laborategi digitala.** Laborategiaren eremu honetan elektronikarekin eta diseinuarekin lotutako tresnak eta baliabideak daude. Altzariaren gainean, eztainutze-estazio txiki batzuk egiteko lekua izango dugu, baita mahai gaineko CNC bat ere, zirkuituak eta plakak egiteko erabili ahal izateko, eta, are, era horretako espazioetan ohikoena den baliabideetako bat: 3D inprimagailuak. Fabrikazio digitaleko erreminten eskaintza osatzeko, 3D eskaner bat, mahai gaineko formatu txikiko laser ebakitzaile bat eta formatu handixeagoko beste bat izango ditugu, diseinu-postu (ordenagailu) baten ondoan, espazio osoa zeharkatzen duen altzari handi horren aurrez aurreko horman erabiltzeko. Diseinu-postu bat egongo da (ordenagailua), erabiltzaileei 2Dko eta 3Dko proiektuak garatzea ahalbidetuko dieten programekin eta material bigunak eta/edo ehunezkoak esploratzeko tresnekin. Altzari handi edukiontzian josteko makina bat, biniloak ebakitzeko makina bat, transferrak egiteko xafla bat eta abar izango ditugu. Gune horretan, altzari-multzoa bi lan-mahai angeluzuzenek osatzen dute, eta une bakoitzean komeni den moduan jarri ahal izango dira, elkarrekin edo bereizita.

- **Coworking laborategia.** Azkenik, ekialdeko fatxadak mugatzen duen laborategiaren eremuan, partekatzeko gune bat izango dugu. Azken tarte horretan, lau lanpostu indibidual eta kutxatila handi bat bihurtzen da altzaria. Kutxatilan, erabiltzaileek beren lanak eta proiektuak gorde eta erakutsi ahal izango dituzte, gainerakoekin partekatzeko. Kutxatila hori harmaila bihurtzen da, eta gune hori lan-espazio informal, atsedenleku edo aurkezpen-eremu gisa erabili ahal izango da. Laborategiaren azken zati horretako ekipamendua *office* edo *coffee corner* txiki batek osatzen du. Erdiko gunean, altzari gisa, hainbat mahai mugikor daude, forma trapezoidalekoak, espazioaren konposizioa eta lan egiteko moduak aldatzea ahalbidetzen dituztenak. Era berean, bi mahai izango ditugu; beren itxitura perimetralarekin, ekipo mugikor eta moldakorretan lan-bilerak egiteko

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

espazioak osatzen dituzte. Horiei esker, hainbat dinamika sortu ahal izango dira, publikoagoak edo pribatuagoak, une horretan espazioari ematen ari zaion erabileraren arabera.

5. UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ERAIKINEKO LABORATEGI TEKNOLOGIKOAREN JARRAIBIDE OROKORRAK

5.1. ARAUTEGIAK

Kontuan izan behar da laborategi teknologikoak araudi guztiak bete behar dituela. Beraz, kontratuaren esleipendun suertatzen den enpresa lizitatzaileak, kontratua gauzatzean, hornidura-, prestakuntza- eta gainerako dokumentazio-zerbitzuak indarrean dagoen legeria eta aplikatu beharreko ordenantzak edo araudiak bete beharko ditu. Honako hauek nabarmentzen dira:

- Zaraten eta bibrazioen udal-ordenantza, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-kutsadurari buruzko urriaren 6ko 213/2012 Dekretua eta horren ondorengo aldaketak.
- Eraikuntzako Ordenantza Osagarriak. Proposamenek «Prestakuntzara» bideratutako tailerrei eskatutakoa bete beharko dute.
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.
- 1215/1997 ERREGE DEKRETUA, uztailaren 18koa, langileek lan-ekipoak erabiltzeko segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.
- 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lantokietako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.
- Aplikatu beharreko gainerako arauak.

5.2. LAN-PLANA

Proiektua gauzatzeko, kontratua betetzeko epe bat ezarriko da (lanen mantentzea eta bermea alde batera utzita), Plegu honen 8. klausulan ezarritakoa.

Enpresa lizitatzaileek, beren proposamen teknikoan, **«Lan-planaren memoria»** puntuan aurkeztu beharreko dokumentazioaren atalean, hornidura-, muntaketa-, instalazio-, funtzionamendu- eta prestakuntza-zerbitzua garatzeko aurreikusitako lan-plana aurkeztuko dute, eta argi adieraziko dute zer mugarri garrantzitsu aurreikusten diren kontratua formalizatu zenetik instalazioaren beste arlo batzuekin (hala nola eraikuntza, beste industria-lan batzuk, Udal Elkartearen berezko jarduera, etab.), bai eta beren lanean garatu beharreko zereginen iraupena ere. Halaber, proiektuan aldi baterako eragin globalari dagokionez, delikatuenak adieraziko dituzte, hau da, instalazioen garapenean duten garrantziagatik, haren garapenarekin izandako edozein arazok lanen azken lorpenean atzerapen handia eragiten dutenak.

Argi eta garbi adieraziko da hasiera-datatik aurreikusitako amaiera-datara arte, enpresa lizitatzaileak hasiera-epetzat jotzen dituen epeen barruan. Lanen programazioa (Gantt) eta azalpen-taula (zereginak, baliabideak eta aurreikusitako denbora jasotzen dituena) jasoko ditu, eta jarduerak zehaztu eta justifikatuko ditu, enpresa lizitatzaileak esleitzen dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak barne, bai eta horien gauzatzea eta koordinazioa ere.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Eskaintza prestatzerakoan, horniduraren ordutegia lan-ordutegiarekin eta Udal Elkarteak antolatutako jarduerekin gauzatzeko aukera hartuko da kontuan, eta baliteke soilik goizez edo arratsaldez lan egin behar izatea fase batzuetan.

Gainera, kontratua betetzeko epean zehar, gaur egungo laborategiak (lehen «Open Lab» gunea izenekoa) martxan jarraituko du; beraz, hornidura laborategiko jarduerekin eta erabiltzaileen sarbidearekin koordinatu beharko da.

Laborategi teknologikora ez da inola ere eraikinaren sarrera nagusitik sartuko, bi alboko sarrera baitaude eraikinean.

Halaber, baliteke lan hauek denboran bat egitea Zarauzko garbigune berriaren lanekin, Udal Elkarteko egoitzaren ondoko partzelan egongo baita. Egoera hori kontuan izan beharko da, lan-planean gerta litezkeen aldaketak direla eta.

Urola Kostako Udal Elkarteak baliozkotu eta onartu beharko du lan-plan hori.

Enpresa esleipendunak kontratuaren xede den instalazioa osorik osatuko du, behar bezala eta errendimendu osoz, Urola Kostako Udal Elkartearekin hitzartutako kronograma honetan adierazitako epean, kontratua esleitzen den unetik aurrera. Horretarako, enpresa esleipendunaren ardura izango da instalazioei eta ondorengo lanei ekiteko beharrezko materiala eta bitartekoak ahalik eta azkarren zehaztea eta eskatzea.

Enpresa esleipendunak lanak osorik edo zati batean ez betetzeagatik sortutako kalte-galeren erantzukizuna izango du, bai edukiari dagokionez, bai epeak ez betetzeari dagokionez.

Plan horrek plegu honetan eskatutako dokumentazioa eta informazioa jaso beharko ditu, enpresa esleipendunak gehitu nahi dituen beste datu edo alderdi batzuei kalterik egin gabe.

Behin exekuzioa amaituta eta instalazioaren harrera formalizatuta, berme-epea hasiko da, fase horretan instalatutako elementuen proposamenean adierazitako eperako, bai eta ekipamenduen erabileran eta mantentze- eta konponketa-zerbitzuan gaikuntza ematea ere, proposamenean adierazitako epean.

6. KONTRATUAREN XEDE DIREN EKINTZAK

6.1. EKIPAMENTUA HORNITZEA, MUNTATZEA, INSTALATZEA ETA MARTXAN JARTZEA

I. ERANSKINean (EKIPAMENDUAREN TXOSTENA), hornitu, muntatu, instalatu eta martxan jarri beharreko ekipoen zerrenda aurkezten da, eta bertan zehazten dira enpresa kontratistak hornitu, muntatu, instalatu eta martxan jarri beharreko ekipoak, unitate-kopurua eta gehieneko aurrekontua, bai eta altzariek bete beharreko ezaugarri teknikoak, energetikoak eta materialak ere.

Eskainitako ekipo guztien xehetasun guztiak argi eta garbi identifikatu behar dira **«Ebazpenaren memorian»**. Informazio hori PDF formatuan aurkeztu behar da, txantiloiaren arabera.

Zerrenda honetan sartuko da ekipoen funtzionamendu normalerako behar-beharrezkoa den beste edozein osagai, proposatutako soluzioaren arabera, nahiz eta zehaztapen teknikoen zerrenda honetan zerrendatu ez.

Konexio-elementuak (hala nola sareko kableak eta elikadura-kableak) ekipamenduek behar bezala funtzionatzeko adina hornitu eta instalatuko dira.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

A. Laborategiko ekipamendua

LABORATEGIKO EKIPAMENDUAREN AURREKONTU-LABURPENA				**50.370,98 €** **BEZik gabe.**
LABORATEGI DIGITALA	FABRIKAZIO DIGITALA	FORMATU HANDIKO 3D INPRIMAKETA	**LB01**	7.379,73€
		3D ESKANERRA	**LB01**	2.615,35€
		LASER EBAKITZAILEA	**LB02**	8.756,50€
		FRESATZEKO CNC MAKINA	**LB03**	18.990,00€
		PCB-RAKO CNC FRESATZEKO MAKINA	**LB04**	3.154,45€
	EHUN-FABRIKAZIOA ETA FABRIKAZIO BIGUNA	BINILO EBAKITZAILEA	**LB05**	949,50€
		TRANSFER PLANTXA	**LB06**	242,65€
		JOSTEKO ETA BRODATZEKO MAKINA DIGITALA	**LB07**	2.268,25€
ESKUZKO LABORATEGIA		PINTURA-ESTAZIOA	**LM01**	3.149,18€
		ESKU-ERREMINTAK	**LM02**	2.865,38€

BEZik gabe.

Produktuek makinei eta laneko ekipamenduei buruz indarrean dagoen araudi espezifikoa bete beharko dute, eta gutxienez 2 urteko bermea izan beharko dute.

Hornidura berme-agiriekin entregatuko da, indarrean dagoen segurtasun-araudiaren arabera, eta CE adostasun-adierazpenarekin, CE markarekin eta jarraibideen eskuliburuarekin, gutxienez EAEko hizkuntza ofizialetako batean.

Hornitutako ekipo guztiak proposatutako espazioaren ezaugarrietara eta neurrietara egokituko dira. Espazioak eskainitako ekipoa baino dimentsio txikiagoa badu, espazioaren benetako dimentsioa lehenetsiko da, eta lizitatzaileak dimentsio horiekin bat datorren ekipoa hornitu beharko du.

Horrez gain, hornitutako makineriaren zerbitzu tekniko ofizial gisa egiaztatu beharko da, eta konpromisoa hartu beharko du fabrikatzaileak homologatutako piezak eta kontsumigarriak erabiltzeko.

6.2. OINARRIZKO PRESTAKUNTZA-PLANA

Hornitu beharreko ekipamendu teknikoaz gain, gutxienez, ekipamenduaren ezaugarriei, atalei, erabilera seguruari, segurtasunari, prebentzioari eta ekipoaren prebentziozko mantentze-lanei buruzko prestakuntza eskaini beharko zaie Udal Elkarteko langileei eta ohiko erabiltzaileei. Prestakuntza hori, gutxienez, bi ordukoa izango da hornitutako lan-ekipo bakoitzeko (eskuzko tresnak izan ezik). Prestakuntza-ponentziez arduratuko diren teknikariek bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) egiteko gai izan beharko dute.

Makina instalatzen denetik gehienez ere 20 egun balioduneko epean eman beharko da prestakuntza, eta eskolak emateko eguna eta ordua Urola Kostako Udal Elkartearekin adostuko dira. Baldintza epidemiologikoek eta higiene- eta segurtasun-baldintzek ahalbidetzen duten guztietan, prestakuntza aurrez aurre egingo da Zarautzen dagoen Udal Elkartearen Laborategi Teknologikoan. Prestakuntza horren kokapena eta edukiera Urola Kostako Udal Elkarteko Prebentzio eta Kalitate Zerbitzuak zehaztuko ditu.

Erabiltzaile-kopurua honako hau da:

- Teknikariak: gutxienez 3 pertsona.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- Erabiltzaileak: gutxienez 6 pertsona

Oro har, prestakuntza bakoitzaren jarraipena egiteko eta eguneroko lanerako material lagungarri gisa erabiliko diren dokumentazioa eta eskuliburuak, euskaraz eta gazteleraz, aurkeztu beharko dira. Prestakuntzara joan izanaren ziurtagiria emango da.

6.3. PRESTAKUNTZA-PLAN GEHIGARRIA (aukerakoa)

Oinarrizko prestakuntza-planaz gain, prestakuntza-plan gehigarri bat proposatu ahal izango da, industria-sektorean, sormen- eta kultura-industrietan, ekintzailetzan eta «maker» mugimenduan aurrerapen teknologiko berriak aplikatzeko.

Prestakuntza-plan gehigarriak bi orduko saioak izan beharko ditu.

Prestakuntza-ponentziez arduratuko diren teknikariek bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) egiteko gai izan beharko dute.

Baldintza epidemiologikoek eta higiene- eta segurtasun-baldintzek ahalbidetzen duten guztietan, prestakuntza aurrez aurre egingo da Zarautzen dagoen Udal Elkartearen Laborategi Teknologikoan. Prestakuntza horren kokapena eta edukiera Urola Kostako Udal Elkarteko Prebentzio eta Kalitate Zerbitzuak zehaztuko ditu.

Formazioak hartzeko, gehienez ere 25 lagunentzako lekua izango duen espazio argi bat egongo da, eta gaur egun beharrezkoak diren konektagarritasun- eta komunikazio-instalazio guztiak izango ditu.

6.4. GIZA BALIABIDEAK

Enpresa esleipendunak emango ditu zerbitzuak, talde profesionala eta giza taldea erabiliz, eta baldintza-agirian eskatzen diren profilak betez, behar bezala eta epean egin ahal izateko.

Enpresa lizitatzaileek honako giza baliabide hauek atxiki beharko dituzte, gutxienez, kontratua gauzatzeko:

- Kontratua betetzeko arduraduna.
- Prestakuntzako teknikaria
- Ekipamendua egokitu eta martxan jartzeko teknikaria
- Mantentze eta konponketa teknikaria
- Garraiorako teknikaria

Zerbitzuak ematen hasi ondoren, enpresa esleipendunak langileen zerrendan izandako edozein aldaketaren berri eman beharko dio Udal Elkarteari. Aldaketa hori kontratua gauzatzeko arduradunari badagokio, haren eginkizunak hasi baino hilabete lehenago jakinarazi beharko da, onar dadin.

Eskaintzan sartu beharko dira Udal Elkartearen eta esleipendunaren arteko koordinazio-mekanismoak, curriculumak, baliabide teknikoak eta lizitatzaileak egokitzat jotzen dituen beste elementu garrantzitsuak.

Urola Kostako Udal Elkarteak enpresa esleipendunari eskatu ahal izango dio kontratua gauzatzera atxikitako pertsonak berehala erretiratzeko, baldin eta pertsona horiek ez badute eskatutako profila betetzen, edo zerbitzuak ematean jokabide desegokia eta/edo arduragabea badute.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Kontratua betetzeko atxiki beharko diren giza baliabideei dagokienez, gutxienez profil teknikodun bi pertsona atxiki beharko dira, kontratua Gipuzkoan betetzeko gai direnak (erantsi Baldintza teknikoen agiri honetan eskatzen den titulazioa: 2. mailako Lanbide Heziketako tituludunak, adar elektronikoa edo informatikoa, edo elektronikaren edo informatikaren adarreko ingeniaritza teknikoa, edo goi-mailako gradua, sistema informatikoen administratzailea edo antzeko titulazioak, pertsona horiek beren titulazioarekin identifikatuz).

7. MAKINAK ENTREGATZEKO BALDINTZAK

- Hornitutako ekipo eta material guztiak berriak izango dira, eta fabrikatzailearen zehaztapen eguneratuenak bete edo gaindituko dituzte alderdi guztietan. Ekipo edo material jakin batzuk hornitzeko epeek Urola Kostako Udal Elkarteak ezarritako exekuzio-epeetan eragina izan badezakete, enpresa kontratistaren erantzukizuna izango da ekipo horiek behar besteko aurrerapenaz hornitzea.

- Udal Elkarteak zehaztuko du makinaren kokapen zehatza Zarauzko bere egoitzan dagoen Laborategi Teknologikoan eta makina entregatzeko ordutegi-tartea. II. ERANSKINean (EKIPAMENDUAREN KOKAPENA) dago atxikita.

- Instalazio-data behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari, jarduketen egutegiarekin batera.

- Urola Kostako Udal Elkarteak hala eskatuz gero, enpresa esleipendunak eraikinaren arkitekturan integratu behar diren edo eraikineko beste instalazio batzuei eragiten dieten osagaien laginak aurkeztu beharko ditu, koordinazioa eta/edo azken onarpena errazteko, eta berrikusteko behar besteko aurrerapenaz.

- Hornitutako makinen garraioa kontratuaren prezioan sartuta dago, eta ez da aldatuko, erregaien prezioak goranzko zein beheranzko aldaketak izan arren.

- Udal Elkarteak ez du baliabide materialik edo pertsonalik jarriko materialak deskargatzeko, manipulatzeko edo muntatzeko. Enpresa esleipendunak behar diren baliabide guztiak jarri behar ditu makina erabat muntatuta eta operatibo entregatzeko.

- Makinak tailerrean zehaztutako lekuan muntatzeko, makinak sartzeko beharrezkoak diren jarduketak gehituko dira, eta beharrezkoak diren ekipo osagarriak kontuan hartu eta hornituko dira. Makinek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren ekipo, pieza eta instalazio osagarri guztiak gehituko dira. Kontuan hartuko da enbalatzeko elementuak edo muntaian sortzen den beste edozein hondakin kentzea, eta konpromisoa hartuko da eremua oztoporik gabe eta garbi uzteko.

- Enpresa esleipendunak honako hauen kontrola egingo du: entregatzen duen materiala, unitate akastunak birjartzea, esleipendunak garraiatu edo manipulatu bitartean apurtutakoak, etab.

- Enpresa esleipendunak makinak muntatzen amaitzen duenean, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek makina horren egoera gainbegiratuko dute. Ikuskapen horretan, makinaren materialen egoera, makinaren funtzionamendua eta muntaiaren kalitatea baloratuko dira. Teknikari horien balorazioaren arabera, azken emaitza egokia ez bada, ez da inolako ordainketarik egingo topatutako akatsak zuzendu arte.

- Nolanahi ere, eta makinak jaso ondoren, Udal Elkarteari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik material akastunak atzematen badira, esleipendunak material hori birjarri beharko du, Udal Elkarteari inolako kosturik eragin gabe.

- Muntaia egin ondoren, enpresa esleipendunak makinen erabilera eta mantentze prebentiboari buruzko prestakuntza teoriko praktikoa emango die Udal Elkarteko langileei eta erabiltzaileei, 6.2 klausulan definitu bezala.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- Zehaztapen teknikoak betetzeko ezinbesteko baldintzatzat jotzen da, esleitutako materiala jasotzean, dokumentazioa edo erabiltzailearen eskuliburuak paperean eta formatu elektronikoan entregatzea, bai eta dokumentazio teknikoa edo zerbitzu teknikoaren eskuliburuak ere, dokumentu hauek barne: piezakatzeak, planoak edo eskemak, osagaiak identifikatzea, matxurak konpontzea, konfigurazio teknikoa, etab. Halaber, ekipoari egin beharreko mantentze prebentibo, prediktibo eta zuzentzaileari buruzko gomendioak eman beharko dira.

8. ENTREGA-EPEA

Makinak entregatzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da gehienez, obra amaitzen denetik kontatzen hasita, 2023ko urriaren 1erako aurreikusita.

9. ESKAINTZARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1. Aurrekontua: Eskaintza ekonomikoa administrazio-pleguetan zehaztutako eranskinaren bidez egingo da

2. Memoriak:

1. Ebazpenaren memoria

- **Lan-ekipoen eta eskuko tresnen deskribapena**
  - Neurriak
  - Ezaugarri teknikoak
  - Funtzionamendu-ezaugarriak, programazio-sistema
  - Segurtasun-elementuen deskribapena eta ezaugarriak
  - Energia aurreztea, kalitateak eta zehaztasuna, torlojuen eta gainerako osagaien iraunkortasuna (lantaldearen arabera, hala dagokionean)
  - Planoak
  - Muntatzeko, funtzionatzeko, mantentzeko... jarraibideen eskuliburua, gutxienez bi hizkuntza ofizialetako batean (euskaraz eta/edo gaztelaniaz)
  - Berme-epea luzatzea...

- proposamen teknikoa osatzen duten **elementuen zerrenda,** Baldintza Teknikoen Pleguko ereduari jarraiki. Soluzio osoari dagokionez, hondar-ekipamendu osagarria ere sartuko da. Ekipamendu hori ez dago Baldintza Teknikoen Plegu honetan sartuta, baina beharrezkoa da lan-ekipoek behar bezala funtzionatzea, Udal Elkartearentzat kostu gehigarririk gabe.
-

- Proiektua gauzatzeko behar den material guztiaren **zehaztapen teknikoen liburuxkak.**

- Derrigorrezko oinarrizko prestakuntza-plana, eskaintzan gehitua (makinen ezaugarriak, segurtasun-gailuak, makina segurtasunez erabiltzeko jarraibideak, makinaren mantentze-lanak...)

- **Zerbitzua saldu osteko konpromisoa** (aukerakoa/baloragarria)

- **Urteroko azterketa teknikoa egiteko konpromisoa** (aukerakoa/baloragarria)

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- **Prestakuntza-plan gehigarria** (aukerakoa/baloragarria), Urola Kostako Udal Elkarteko teknikariei eta Laborategi Teknologikoaren ohiko erabiltzaileei azalpenak emateko.
-

2. **Lan-planaren memoria**
   - **Garatu beharreko jardueren memoria eta lan-plana,** adjudikaziotik hasi eta amaierara arte. Halaber, lanei ekiteko modua azaltzen duen kronograma ere sartuko da.

   - **ISO 9001:2015 araudia betetzearen ziurtagiria**

   - **Langileen curriculumak eta zeregin espezifikoak**

   - Hornitutako makineriaren Zerbitzu Tekniko Ofizialaren **egiaztapen ofiziala**

10. BEHIN HORKIDURA, MUNTAIA, INSTALAZIOA ETA MARTXAN JARTZEA AMAITUTA ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- Ekipo bakoitzeko, muntaiarako, funtzionamendurako, erabilera segururako jarraibideen eskuliburua, CE onespen-adierazpena, mantentze-plana eta abar emango dira, hizkuntza ofizialean (gaztelaniaz eta/edo euskaraz).
- Laborategi Teknologikoan instalatutako ekipo guztien zerrenda osoa emango da, eta bertan argi eta garbi identifikatu ahal izango da gutxienez:
  - Ekipoaren identifikazio unibokoa (identifikazio-izena)
  - Sare-konfigurazioen datuak, beharrezkoa bada.
  - Ekipoek konfiguratzeko eta/edo mantentzeko behar dituzten erabiltzaile-izenen eta pasahitzen datuak.
  - Serie-zenbakia.
  - Plegu honen xede diren erositako ekipoen fabrikatzailearen berme-aldiaren hasiera eta amaiera.
- Instalaziorako erositako ekipoen fabrikatzailearen bermeari buruzko dokumentazioa.
- Plegu honen xede diren erositako ekipoen lizitatzailearen bermeari buruzko dokumentazioa.
- Ekipoaren CE marka

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus